

Ebazpena: R 72/2023

Espedientea: 33/2018

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 23a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea nork duen eskumena GORATU MAQUINAS-HERRAMIENTA SA (aurrerantzean, GORATU) zergapekoak 2013an egindako lan-atxikipenak ordainarazteko; zehazki, auzia zerbitzuak ustez lurralde erkidean eksklusiboki eman zituzten langile jakin batzuen lan-atxikipenen ingurukoa da. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 33/2018 espedientezenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- GORATU egoitza fiskala Gipuzkoan daukan sozietate bat da, lurralde erkidean lan egiten duten komertzialak dituena; hala eta guztiz ere, lan pertsonalaren gaineko atxikipenen diru-sarrera guztiak GFARI egin zizkion 2013tik 2016ra bitartean.

2.- ZAEAk, 2017ko martxoaren 28an, egiaztapen-prozedura bat abiarazi zuen, zehazki, zerbitzuak ustez lurralde erkidean eksklusiboki eman zituzten komertzial jakin batzuen 2013-2014 urteetako lan pertsonalaren gaineko atxikipenak ordainarazteko eskumenarekin lotuta.

Egindako egiaztapenen ondorioz, jarduketak 2015-2016 urteetara ere zabaldu ziren.

3.- Jarduketak 2018ko urtarrilaren 18an amaitu ziren txosten batekin; bertan, egiaztapen-prozeduraren xede izandako ekitaldi bakoitzean GFari egindako okerreko diru-sarrerak zehaztu ziren.

4.- ZAEAk, 2018ko otsailaren 12an, aipatutako txostenean islatutako kopuruak bidaltzeko eskatu zion GFari.

5.- GFAk, 2018ko uztailaren 18an, eskaera partzialki ez onartzea erabaki zuen 2013ko ekitaldiari zegokionez, administrazioen arteko eskubide publikoko kreditua preskribatuta zegoela argudiatuta.

6.- ZAEAk, 2018ko irailaren 18an, inhibititu zedila eskatu zion GFari; aldiz, eskumena berea zela berretsi zuen GFAk 2018ko urriaren 18an.

7.- ZAEAk, 2018ko azaroaren 16an, gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordean; 33/2018 espediente-zenbakia esleitu zitzaion, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Preskripzioa

Arbitraje Batzordeak 11/2014 Ebazpenean eta Auzitegi Gorenak 2015eko abenduaren 15eko, 2022ko otsailaren 10eko, 2020ko abenduaren 3ko, 2021eko urtarrilaren 28ko eta 2020ko maiatzaren 18ko epaietan (ECLI:ES:TS:2015:5337, ECLI:ES:TS:2022:596, ECLI:ES:TS:2020:4077, ECLI:ES:TS:2021:372 eta ECLI:ES:TS:2020:1010 epaiak, hurrenez hurren), irizpide konstante bat ezarri dute: administrazioen arteko kreditu publikorako eskubidea izaera publikoko aurrekontu-eskubidea da, administrazioak zergadunaren aurrean duen zerga-eskubideaz bestelakoa; eta administrazioen arteko kreditu publikorako eskubidearen preskripzio-epea bidegabeko diru-sarrera egiten den unean hasten da, eta ez da eteten zergadunaren gaineko eskumenaren jabetzat jotzen den administrazioak (hirugarren bat izaten da administrazioen arteko harreman juridikoan) zerga-prozeduran egiten dituen jarduketan ondorioz.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- Preskribatutzat jotzea Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko administrazioen arteko kreditu publikorako eskubidea, Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako okerreko diru-sarrerak erreklamatzeko, zehazki, 2013an egindako lan pertsonalaren gaineko atxikipenak.

2.- Jakinaraztea honako erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta GORATU MAQUINA-HERRAMIENTA SA sozietateari.